

**Diseinuentzako deialdia, DUETO-Detroit  
Programan parte hartzeko interesa  
adierazteko**

1. AURKEZPENA
2. DEIALDIAREN XEDEA
3. NORK PARTE HAR DEZAKE
4. EPEA, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO MODUA
5. BALORAZIO-IRIZPIDEAK ETA -PROZESUA
6. ORDAINKETA MODUA
7. DATU PERTSONALEN BABESA
8. KONFIDENTZIALTASUNA
9. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA

I. ERANSKINA: ESKABIDE-FORMULARIOA ETA ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

II. ERANSKINA: HIZKUNTZEN EZAGUTZA

## 1. AURKEZPENA

Bilbao Ekintza, EPELe (aurrerantzean, "Bilbao Ekintza") Bilboko hirian aberastasun ekonomiko eta soziala sortzea du helburu, eta, horretarako, inbertsioak egiteko, enpresak sortzeko eta bertan hazteko, bisitariak eta talentua erakartzeko gaitasunak indartzen dihardu.

Ingurumari horretan, Bilbao Ekintzak Berrikuntza Ekosistemako Unitatea dauka Hiri-ekonomiaren Sailaren barruan. Sail horrek, lehenasunezko helburuen artean, bereziki sektore jakin batzuen alde lan egiten du, espezializazio adimendunaren estrategiaren barruan, besteak beste diseinuaren aldeko apustua eginez.

Horren haritik, 2014tik Bilbo UNESCOren Hiri Sortzaileen Sareko kide da, Diseinu kategorian, beste berrogeita hamabi hirirekin batera.

### DUETO PROGRAMA

Dueto UNESCO nazioarteko ekimen bat da, eta UNESCOren Diseinu Azpisareko ([UCCN](#)) hirietako diseinu-arloko profesionalen eta enpresen arteko lankidetzak eta jakintzaren trukea sustatzea du helburu.

Dueto programa honetan datza: 3-6 hilabetez, Bilboko diseinuaren arloko profesional batek UCCNren beste Diseinuaren Hiri batean egoitza duen enpresa batekin lan egingo du, diseinuaren metodologiak erabiliz erronka espezifiko bati heltzeko. Era berean, beste hiri horretako diseinuko profesional batek euskal enpresa batekin lan egingo du bere erronka aurrera eramaten.

Sareko hiri bakoitzean, erakunde kudeatzaileak bere gain hartuko du bere hiriko diseinu-profesionalaren konpentsazio ekonomikoa, eta enpresak 2.000€ eman beharko dizkio erakunde horri, proiektuarekin duen konpromisoaren froga gisa. Enpresak bere gain hartu beharko ditu proiektua garatzeko materialen kostu guztiak.

[UCCNren Diseinu azpisarea](#)k mundu mailako berrogeita hamahiru hiri biltzen dituenez, lankidetzak baliabide telematikoen bidez gauzatuko da ziurrenik. Elkarrekin komunikatzeko aldeek menperatzen duten beste hizkuntza bat adostu ezean, printzipioz lan-hizkuntza ingelesa izango da.

Programaren helburu orokorrak hauek dira:

- Diseinuaren kultura eta diseinu-prozesua sustatzea, enpresa-ehunean balio erantsi gisa.
- Diseinuaren eta enpresaren arteko harremana nabarmenduko duten emaitza zehatzak eskaintzea.
- Bilboren irudia indartzea, diseinuarekin eta berrikuntzarekin lotuta, eta, ondorioz, diseinuaren sektorearena.

Deialdi honetan, Bilboko diseinuko profesional bat Detroit hiriko enpresa batekin konektatuko da, eta alderantziz, Design Core Detroit erakundearekin lankidetzan arituz. Erakunde hori arduratzen da hiri horrek UCCN sarean duen parte-hartzea kudeatzeaz. Ondoren, beste hiri batzuetako enpresekin edo bertako enpresekin ere lankidetzan aritu ahal izango da, aurrekontu-erabilgarritasunaren eta sareko gainerako hiriek erakutsitako interesaren arabera. Bilboren kasuan, diseinuko profesionalak 10.000 euroko konpentsazio ekonomikoa jasoko du lankidetzan hori garatzeagatik, BEZik gabe.

Programak honako faseak izango ditu:

1. ENPRESen erronkak identifikatzea. Fase honetan, BILBAO EKINTZAK programarako egokiena den ENPRESA identifikatuko eta hautatuko du. Era berean, DESIGN CORE DETROIT izango da bere lurraldeko ENPRESA eta erronka hautatzeko arduraduna.
2. Erronka bakoitzari hobeto erantzuten dioten DISEINATZAILEAK aukeratzea. Enpresen proiektuen eta ezaugarrien arabera, BILBAO EKINTZA eta DESIGN CORE DETROIT arduratuko dira lurralde bakoitzean diseinatzailea hautatzeko prozesua kudeatzeaz.
3. Aurre-hautaketa egin ondoren, ENPRESARI hainbat hautagai proposatuko zaizkio, gaitasunak eta lan-portfolioa baloratzeko. ENPRESAK adierazitako lehentasunen arabera, DISEINATZAILE egokiena hautatuko da.
4. *Memorandum of Understanding* (MoU) edo alde guztien betebeharrak eta obligazioak, lankidetzaren irismena eta programaren deskribapena jasoko dituen beste edozein dokumentu formal sinatuko da.
5. Akordioaz gain, ENPRESA eta DISEINATZAILEA proiektua aztertzeko eta lanaren irismena edo *Statement of Work* (SOW) dokumentua zehazteko elkartuko dira.
6. MoU eta SOW dokumentuak sinatu ondoren, DISEINATZAILEAK lehen ordainketa jasoko du (guztizkoaren %50), bere hiriko AGENTEAK ordainduta.

7. Proiektua amaitutakoan, bai ENPRESAK bai DISEINATZAILEAK lankidetzaren garapena eta azken emaitza jasoko dituen laburpen-txostena aurkeztu beharko dute.
8. Hiri bakoitzeko AGENTEAK programaren amaieran, eta txostena jaso ondoren, egingo dio bigarren ordainketa bere hiriko DISEINATZAILEARI.

## 2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da Detroiteko hiriarekin Dueto programan parte hartzeko interesa izan dezaketen Bilboko udalerriko diseinatzaileak identifikatzea, Detroiteko enpresak datozen 3-6 hilabeteetan planteatutako erronkari aurre egiteko.

Zehazki, [Livaq](#) enpresak proposatuta, **erabiltzailearen esperientzia (UX) diseinatzeko erronka bat da**. Livaq Detroiteko enpresa bat da, eta lur orotako ibilgailu elektriko modularrak eta softwarearen bidez kontrolatutakoak garatzen ditu. Haren produktu nagusia, **EQUAD**, flota publikoei, operadore profesionalei eta aisialdiko erabiltzaileei zuzenduta dago, eta funtzionalitate aurreratuak biltzen ditu, hala nola floten kudeaketa, gidatzeko modu konfiguragarriak, bateriaren egoera, segurtasun-alertak, modulu konektatuak eta urrutiko softwareen (OTA-Over The Air) eguneratzeak.

Erronka da **ibilgailu horretarako erabiltzaile-interfaze bateratu, intuitibo eta seguru bat diseinatzea**, baldintza zorrotzetan erabiltzeko pentsatua (eguzki bizia, euria, bibrazioak, eskularruen erabilera). Helburua da pantailaren eta eskulekuaren aginteen bidez informazio kritikoren bistaratzea eta sarbidea hobetzea, gidatzean distrakzioak murriztuz eta esperientzia Livaqen marka-identitatearekin lerrokatuz.

### III. ERANSKINEAN erantsi da ERRONKAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA.

Parte hartzen duten diseinatzaileek konpromiso eta betebeharrak hartzen dituzte beren gain Dueto programaren esparruan:

- Detroiteko enpresak datozen 3-6 hilabeteetan planteatutako erronkari aurre egiteko prestasuna eta gaitasuna izatea.
- ENPRESAREKIN lankidetzan estuan lan egitea. Horretarako, aldian-aldian enpresarekin batzartuko dira, proiektuaren aurrerapena gainbegiratzeko eta beharrezko doikuntzak egiteko. Gainera, komunikazio arina izango dute, BILBAO EKINTZARI aldizkako

informazioa emateko proiektuaren garapenari eta egoerari buruz, baita aurrerapen-dokumentuen bidez ere.

- Akordioa sinatzea, *Memorandum of Understanding* (MoU), edo alderdien betebeharrak eta obligazioak, lankidetzaren irismena eta programaren deskribapena jasotzen dituen beste edozein dokumentu.
- Akordioaz gain, ENPRESAk eta DISEINATZAILEAK bilera egingo dute proiektua eztabaidatzeko eta lanaren irismena idazteko edo Statement of Work (SOW).
- Amaieran, lankidetzaren garapena eta azken emaitza jasoko dituen txosten labur bat aurkeztea.
- Bilboko Udalak, BILBAO EKINTZAK, EPELek edo bere Administrazioari lotutako erakunderen batek proiektuaren informazioa edo emaitzak argitaratu ahal izateko baimena ematea, egokitzat jotzen dituen bitartekoetan, zabalkunde hori egiteko behar diren informazioa eta materialak emanez.
- BILBAO EKINTZARI aldian behin proiektuaren garapenaren eta egoeraren berri ematea.
- Berak proiektua zabaltzeko, komunikatzeko eta/edo publizitatea egiteko jarduerak egiten baditu, ematen zaizkion logotipoak erabili beharko ditu, eta adierazi beharko du proiektu hori *Dueto programaren* barruan dagoela.

Dueto programaren garapenaren ondoriozko emaitzen, prototipoen, produktuen, diseinuen, metodologiaren edo dokumentuen titulartasuna enpresa parte-hartzailearena (ENPRESA) izango da, salbu eta alderdiek beste banaketa bat adosten badute enpresak eta diseinatzaileak edo estudioak (DISEINATZAILEA) sinatutako dokumentu espezifiko baten bidez.

Hala ere, diseinatzaileek aplikatu beharreko legeriaren arabera dagozkien eskubide moralak gordeko dituzte.

BILBAO EKINTZA eta DESIGN CORE DETROITek lizentzia ez-esklusiboa izango dute, mundukoa, doakoa eta mugagabea, programako irudiak, prototipoak, emaitzak eta materialak sustapen-helburuekin, dibulgazio-helburuekin eta ez merkataritza-helburuekin soilik erabiltzeko.

Proiektua garatzearen ondorioz hirugarrenen eskubideak urratzen ez direla bermatuko dute alderdiek.

### **3. NORK PARTE HAR DEZAKE**

Diseinuko edozein profesionalak edo edozein diseinu-estudiok parte hartu ahal izango du ekimen honetan, baldin eta baldintza hauek betetzen baditu:

1. Jarduteko gaitasun osoa eta nortasun juridikoa izatea.
2. Jarduera Bilboko udalerrian garatzea. Horrekin lotuta, jarduera Bilbon egiten duela ulertuko da sozietatearen helbidea edo, behintzat, lantoki bat Bilboko udalerrian duela egiaztatzen badu.
3. Banakako enpresaburuak edo enpresa txiki eta ertainak (ETE) izatea. Horrekin lotuta, enpresa txikiaren (ETE) definizioa aintzat hartuko da [Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduko 2. artikulua](#) dioenari jarraikiz.
4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Eskakizunak betetzeari dagokionez, diseinuko profesionaltzat hartuko dira Europar Batasunaren lurraldearen barruan, lanbidean jarduteko legezko ahalmena duten pertsonak, baldin eta jarduera profesionala diseinuaren esparruan egin dutela frogatzen badute, honela:

- Pertsona fisikoen kasuan, gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute diseinuarekin lotutako proiektuetan.
- Pertsona juridikoei doakienez, programan parte hartzen duten pertsona guztiek 5 urteko esperientzia izan beharko dute diseinuarekin lotutako proiektuetan.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazioak, sozietate publikoak eta horietako edozeini lotutako edo haien mendeko erakundeak.

Halaber, ezingo dute parte hartu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean (aurrerantzean, SPKL) jasotako kontratazio-debekuren bati loturik dauden pertsona fisiko edo juridikoek.

Baldintza horiek Dueto programa garatzen den bitartean bete beharko dira.

#### **4. EPEA, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO MODUA**

Detroitekin Dueto programan parte hartzeko eskaera aurkeztu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek I. ERANSKINA (ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA) bete beharko dute, nahitaezko dokumentazioarekin batera, eta helbide elektroniko honetara bidali beharko dute: [sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus)

Aurkezteko epea: **10 egun balioudun , Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera**

Edozein zalantza argitzeko helbide elektroniko honetara idatzi daiteke: [sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus)

Eskabidea aurkeztuz gero, interesdunak Oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak eta betebeharrak onartzen ditu.

Bilbao Ekintzak jasotako informazioa zabaltzeko edo argitzeko eskatu ahal izango du.

#### **Aurkeztu behar diren dokumentuak**

- I. ERANSKINA: ESKABIDEAREN INPRIMAKIA eta ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, oso-osoarik beteta.
- II. ERANSKINA: HIZKUNTZEN EZAGUTZA: Pertsona juridikoei dagokienez, proiektuan parte hartuko duten diseinuaren arloko profesional guztien ezagutzak zehaztu beharko dira.
- Programan parte hartzeko motibazio-gutuna (gehienez, 2 orrialde). Bertan adierazi behar da interesdunaren esperientziak hautagaitza gaitzen duela, eta proposatutako erronketako bati erantzuteko interesa justifikatu beharko du.
- Curriculum Vitae-a (gehienez, 3 orrialde/pertsonako). Pertsona juridikoen kasuan, proiektuan parte har dezaketen pertsona guztien curriculumak aurkeztuko dira, zein proiektutan lan egin duten adierazita. Parte-hartzaile guztiek esperientziaren baldintza bete beharko dute.
- Lan nabarmenen portfolioa, estudioak edo profesionalak ordura arte egin dituen eta deialdi honen xede den lanari lotutakotzat jotzen diren eta proposatutako erronkarekin ezkon daitezkeen bost proiektu, gehienez ere, biltzen dituen. Dokumentu horren luzera ez da 10 orrialdetik gorakoa izango. Gainera, nahi izanez gero, web-orri baterako edo antzeko baterako esteka adierazi ahalko da, proiektu edo azterketa-kasu bakoitza sakonago aztertzeko.

I. eranskina eta gainerako dokumentazioa 5 artxibo bereizitan bidaliko dira, lehen aipatutako helbide elektronikora.

Parte hartzeko proposamena aurkeztu duen pertsonak edo pertsonak bere gain hartzen dute erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Edozelan ere, Bilbao Ekintzak beste edozein agiri edo informazio eskatu ahal izango die eskatzaileei, beharrezkotzat jotzen badu, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

## 5. IRIZPIDEAK ETA BALORAZIO PROZESUA

Diseinuaren arloko profesionalak hautatzeko prozesua honako etapa hauetan egingo da:

### 5.1. Hautagaitzen aurretiko hautaketa

Izangaiek parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, aurkeztutako hautagaitzak balioetsiko dira, irizpide hauen arabera:

| IRIZPIDEA                                  | DESKRIBAPENA  | GEHIENKO PUNTUAZIOA (50 puntu) |
|--|---|--------------------------------|
| PROFILA/K ERRONKAREN BEHARRETARA EGOKITZEA | Aldez aurreko esperientzia erronkaren xede den lanarekin zerkusia duten proiektuetan, edo horiek ebazteko aplikatu beharreko ikaskuntzetan. Hau da, UX gaitan eta/edo erronkaren antzeko ibilgailuetan. | 25                             |
| IBILBIDEA                                  | Proiektuan parte hartu duten diseinatzaileek diseinuan 5 urtetik gorako esperientzia profesionala izatea.   | 15                             |
| ADIERAZITAKO MOTIBAZIOA                    | Erronka garatzeko motibazio-gutunean erakutsitako interes-maila.  | 10                             |

Balorazio hori Bilbao Ekintzako langileek, Euskal Diseinuaren Elkarteko ([EIDE](#)) ordezkari batek eta, hala badagokio, Design Core Detroiteko pertsona batek osatutako batzorde batek egingo du.

### 5.2. Hautagaitzaren defentsa

Puntuaziorik handiena lortu duten hiru hautagaien zerrenda egingo da, eta zerrenda hori hautagaiei jakinaraziko zaie. Zerrendak izangai bakoitzaren gaitasunak, lan-zorroa eta harremanetarako datuak jasoko ditu.

Hautagai hori(ek) aurkezpen bat egitera gonbidatuko d(ir)a, komeni den formatuan. Aurkezpen horretan, nor bere hautagaitza defendatu ahalko du, balorazio-batzordearen eta erronka proposatu duen enpresaren aurrean.

### **5.3. Azken hautaketa**

Enpresak adierazitako lehentasunarekin, diseinatzaile egokiena hautatuko da azkenean, eta haren motibazioa adieraziko da. Profesionalaren azken hautaketa parte hartzeko eskabidean adierazitako posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dute.

Hautagaitza defendatzeko saioa egin ondoren, enpresak profesionala egokitzat jotzen ez badu, ez du prozesuarekin jarraitu beharko. Balioespen-irizpideak aplikatu ondoren, hautagaitza bat bera ere egokitzat jotzen ez bada, deialdia bete gabe utzi ahalko da.

Bilbao Ekintzak beretzat gordetzen du erronka horretarako aurkeztu diren hautagaiak proposatzeko eskubidea, ondoren sor daitekeen beste erronka bati erantzuteko zerrendan, baldin eta haien profila egokitzat jotzen bada beste erronka horren beharrei erantzuteko eta diseinatzaileak adostasuna eta prestasuna adierazten baditu.

Honako deialdi honetan parte hartzen duten hautagaiek deialdian ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzen ez dituztela egiaztatuz gero, hautagaiak prozeduratik kanpo geratuko dira.

## **6. ORDAINKETA MODUA**

Hautatutako diseinatzaileak 10.000 euroko konpentsazioa jasoko du proiektuan laguntzeagatik. Zenbateko horren barruan kontuan hartuta daude bidaia-gastuak, dietak eta programaren esparruan garatutako proiektuari lotutako beste edozein gastu eta BEZik ez du.

MoU eta SOW sinatu ondoren, lehenengo ordainketa jasoko du (guztizkoaren % 50), Bilbao Ekintza EPELek ordainduta.

Bigarren ordainketa proiektua amaitu eta memoria jaso ondoren egingo da.

## **7. DATU PERTSONALEN BABESA**

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DPBEDBLO) xedatutakoaren arabera, jakinarazten da Bilbao Ekintza, EPELek (helbidea: Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo) tratatuko dituela deialdi honen esparruan emandako datu pertsonalak, tratamenduaren arduraduna den aldetik.

### **1. Tratamenduaren helburua**

Emandako datuak Dueto Programan aurkeztutako hautagaitzen parte-hartzea, ebaluazioa eta izapidetzea kudeatzeko erabiliko dira, honako hauek barne:

- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
- Proiektuen balorazioa.
- Prozesuarekin lotutako komunikazioak kudeatzea.
- Programaren jarraipena, kontrola eta justifikazioa.
- Estatistika anonimizatuak egitea, politika publikoak ebaluatzeko.

Tratamendu horiek Bilbao Ekintzari esleitutako interes publikoko eginkizunak betez egiten dira, enpresa-sarea sustatzeko, diseinua eta berrikuntza bultzatzeko eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko.

### **2. Tratamenduaren oinarri juridikoa**

Tratamenduak oinarri hauek ditu:

- DBEOren 6.1.e) artikulua: interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzea.
- DBEOren 6.1.c) artikulua: araudi administratiboaren, gardentasunaren, kontrolaren eta auditoretzaren ondoriozko lege-betebeharrak betetzea.
- DBEOren 6.1.a) artikulua: eskatzailearen baimen espresua, UCCN sarearen esparruan informazioa lagatzeko, hala badagokio.

### **3. Datuen kontserbazioa**

Datuak deskribatutako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta, ondoren, administrazio-, kontratu-, kontabilitate- eta gardentasun-erantzukizunari eta artxibo publikoari buruzko legeriak eskatutako epeetan. Ondoren, behar bezala blokeatuko dira, eta, hala dagokionean, ezabatu.

### **4. Hartzaileak eta datu-lagapenak**

Oro har, ez zaie daturik lagako hirugarrenei, honako kasu hauetan izan ezik:

- Legezko betebeharra, gardentasunaren, finantza-kontrolaren, ikuskaritza publikoaren edo jurisdikzio-organoen errekerimenduen arauditik eratorritakoa barne.
- UNESCOren Hiri Sortzaileen Sareko (UCCN) erakundeei, soilik trukea kudeatzeko ezinbestekoa denean eta betiere interesdunari informazioa eman ondoren.

Nazioarteko datu-transferentziak aurreikusita daude, Dueto programa gauzatzeko behar-beharrezkoak diren kasuetan eta UCCNko herrialde/hirietara, DBEOn aurreikusitako berme egokiak aplikatuz.

### **5. Interesdunen eskubideak**

Datuen titularrek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte eskubide hauek:

- Sarbidea,
- Zuzenketa,
- Ezabatzea,
- Aurkakotasuna,
- Tratamenduaren murrizketa,

- Eramangarritasuna, hala badagokio, horretarako, tratamenduaren arduradunari zuzendutako idatzia bidaliz eta bere identitatea egiaztatuz, [datos@bilbao.eus](mailto:datos@bilbao.eus) helbide elektronikora, edo posta-helbide honetara: Nafarroa kalea 5 – 48001 Bilbo.

Era berean, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (AEPD): [www.aepd.es](http://www.aepd.es).

## **6. Beste datu-tratamenduak**

Bilbao Ekintza EPELek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, [datos@bilbao.eus](mailto:datos@bilbao.eus) helbidera idatz daiteke datuen tratamenduaren gaineko informazio gehiago eske.

## **8. KONFIDENTZIALTASUNA**

Bilbao Ekintza EPELek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, [datos@bilbao.eus](mailto:datos@bilbao.eus) helbidera idatz daiteke datuen tratamenduaren gaineko informazio gehiago eske.

## **9. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA**

Bilbao Ekintzak deialdi honetako baldintzak interpretatzeko eskubidea izango du, zalantzarik sortzen duen edozein egoera dela-eta; halakoetan, behin betiko erabakiak hartuko ditu.

Oinarri hauetan parte hartze hutsak berekin dakar indarrean dagoen legeria betetzea, oinarriak onartzea eta Bilbao Ekintza EPEL erakundeak oinarri hauekin lotutako zalantzak argitzeko edo interpretazio lotesleak egiteko duen gaitasuna aitortzea. Ez du inolako erantzukizunik izango Bilbao Ekintzak hirugarrenen eskubideen balizko urraketan aurrean.

## ANEXO I. ERANSKINA

### DISENATZAILEI ZUZENDUTAKO DEIALDIA, DUETO-DETROIT PROGRAMAN PARTE HARTZEKO INTERESA ADIERAZTEKO

### CONVOCATORIA A DISEÑADORES/AS INTERESADOS/AS EN PARTICIPAR EN EL PROGRAMA DUETO-DETROIT

|  |   |
|--|---|
| <b>I. ERANSKINA: ESKABIDE-FORMULARIOA ETA ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA</b><br>ANEXO I: FORMULARIO DE SOLICITUD Y DECLARACIÓN RESPONSABLE | <b>Sarrera Erregistroa</b><br>Registro de entrada |
|--|---|

#### 1. ESKATZAILEAREN DATUAK (pertsona fisiko edo juridikoa)

##### 1. DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE (persona física o jurídica)

|   |  |  |  |
|---|--|--|--|
| <input type="checkbox"/>  | <b>Enpresa / Empresa</b>   |  |  |
| <input type="checkbox"/>  | <b>Pertsona fisikoa / Persona física (profesional autónomo o autónoma)</b> |  |  |
| <b>Izen-abizenak / Enpresaren izen soziala</b><br><i>Nombre y apellidos / Denominación social de la empresa</i>                         |  | <b>NAN/ DNI</b><br><b>IFZ/NIF</b>              |  |
| <b>Helbidea / Dirección</b>   |  |  |  |
| <b>Udalerrria / Municipio</b>   |  | <b>Posta-kodea / Código postal</b>             |  |
| <b>Telefono Zenbakia / Teléfono</b>   |  | <b>Posta elektronikoa / Correo electrónico</b> |  |
| <b>Harremanetarako pertsona (izena, telefonoa eta posta elektronikoa) / Persona de contacto (nombre, teléfono y correo electrónico)</b> |  |  |  |

#### ENPRESA BATEN KASUAN, LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK EN EL CASO DE UNA EMPRESA, DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE LEGAL

|   |  |                |  |
|---|--|----------------|--|
| <b>Izen-deiturak / Nombre y apellidos</b> |  | <b>NAN/DNI</b> |  |
|---|--|----------------|--|

## 2. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

### 2. DECLARACIÓN RESPONSABLE

\_\_\_\_\_ jaunak/ andreak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakidunak, "Diseinatzaileentzako deialdia, Dueto-Detroit programan parte hartzeko interesa adierazteko"-ren esparruan, eskabide honetan jasotako datuak dituen erakunde eskatzailearen izenean edo haren ordezkari gisa, **ESKATZEN DU** bertan parte hartzea.

Halaber, eskabide hau sinatzen duen pertsonak honako hau **ADIERAZTEN DU**, bere erantzukizunpean:

- Nortasun juridikoa eta egoitza soziala edo lantokia Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.
- ETE (enpresa txiki eta ertaina) izatea, Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduan emandako definizioaren arabera).
- Deialdiaren baldintzak ezagutzea, eta bertan eskatzen diren betekizunak betetzea.
- Jarduteko gaitasun osoa izatea.
- Administrazio Publikoarekin kontratuak egitea eragozten duten egoeretako batean ere ez egotea.
- Administrazioekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea, Bilboko Udala barne.
- Baimena ematea Bilbao Ekintzak aurkeztutako informazioa parteka dezan UNESCOren Hiri Sortzaileen Sareko (UCCN) Diseinuko azpisareko beste hiri batzuekin, Dueto programaren esparruan.

\_\_\_\_\_ Con DNI \_\_\_\_\_, en nombre propio o en representación de la entidad solicitante cuyos datos constan en la presente solicitud para participar en la "Convocatoria a Diseñadores/as interesados/as en participar en el programa Dueto-Detroit", **SOLICITA** acceder a la misma.

Asimismo, la persona firmante de la presente solicitud **DECLARA**, bajo su responsabilidad:

- Tener personalidad jurídica y domicilio social o centro de trabajo en el País Vasco.
- Ser PYME (Pequeña y Mediana Empresa) según la definición en el Reglamento 651/2014 de la Comisión Europea.
- Conocer los términos y condiciones de la convocatoria y reunir los requisitos exigidos en la misma.
- Tener plena capacidad de obrar.
- No estar incurso en ningún procedimiento que les impida contratar o colaborar con la administración pública.
- Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con las diferentes Administraciones y con la Seguridad Social, incluido el Ayuntamiento de Bilbao.
- Dar su consentimiento para que Bilbao Ekintza comparta la información presentada, con otras ciudades de la Red de Ciudades Creativas de la UNESCO (UCCN), subred de Diseño, en el marco del Programa Dueto.

| <b>DOKUMENTAZIOA</b><br><b>DOCUMENTACIÓN</b>  |  |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> <b>Parte hartzeko eskaera eta erantzukizunpeko adierazpena beteta eta sinatuta</b>   | <input type="checkbox"/> <b>Solicitud de acceso y declaración responsable cumplimentada y firmada</b>  |
| <input type="checkbox"/> <b>ADIERAZI EA DOKUMENTAZIO HAU ERANSTEN DEN, eta posta elektronikoz bidali helbide honetara:</b><br><a href="mailto:sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus">sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus</a> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>II. Eranskina: Hizkuntzen ezagutza</i></li> <li>• <i>Programan parte hartzeko motibazio-gutuna (gehenez 2 orrialde).</i></li> <li>• <i>Curriculum Vitae (gehenez 3 orrialde).</i></li> <li>• <i>Lan nabarmenen portfolioa, profesionalak orain arte egindako eta prozesu honen xede den lanetik hurbilen dauden bosti lan, gehenez, bilduko dituen. Dokumentu honen luzera ez da 10 orrialdetik gorakoa izango.</i></li> </ul>   | <input type="checkbox"/> <b>SEÑALAR SI SE ADJUNTA LA SIGUIENTE DOCUMENTACIÓN y enviarla por email a la dirección: <a href="mailto:sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus">sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus</a></b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Anexo II: Conocimiento de idiomas</i></li> <li>• <i>Carta de motivación para participar en el programa (máximo de 2 páginas).</i></li> <li>• <i>Curriculum Vitae (máximo 3 páginas).</i></li> <li>• <i>Portfolio de trabajos destacados que recoja hasta un máximo de cinco trabajos que el estudio o profesional haya realizado hasta el momento y que considere que están más cercanos al trabajo objeto del presente proceso. La extensión de este documento no podrá superar las 10 páginas.</i></li> </ul>   |
| <b>DATUEN BABESA /</b><br><b>PROTECCIÓN DE DATOS</b>  |  |
| <p>Datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat, Bilbao Ekintza, E.P.E.L.-ek jakinarazi du deialdi honetako eskabideetan dauden datu pertsonalak Bilbao Ekintza, E.P.E.L.-ek aztertuko dituela. helbidea Nafarroa kalea, 5. 48001 – Bilbo izanik, hautagaitzak kudeatu eta izapidetu ahal izateko helburuarekin.</p> <p>Datuak behar den denboran gordeko dira bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko.</p> <p>Tratamendu horiek Bilbao Ekintza, E.P.E.L.-eri emandako botere publikoen erabileran oinarritzen dira tratamenduaren arduradun gisa.</p> <p>Datuen nazioarteko transferentziak egingo dira, programarako hautatutako hautagaitzak kudeatzeko eta izapidetzeko.</p> <p>Interesdunek eskubide hauek dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zure datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien tratamendua mugatzea edo aurka egitea. Horretarako, idazki bat bidali beharko duzu Tratamenduaren arduradunaren helbidera, nor zaren egiaztatu ondoren.</li> <li>2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko.</li> </ol> <p>Bilbao Ekintza E.P.E.L.-ek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu <a href="mailto:datos@bilbao.eus">datos@bilbao.eus</a> posta elektronikoko helbidera eta eskatu datu pertsonalen tratamendu honi buruzko informazio gehiago.</p> | <p>De conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de protección de datos, Bilbao Ekintza, E.P.E.L. informa que los datos de carácter personal obrantes en las solicitudes de la presente convocatoria serán tratados por Bilbao Ekintza, E.P.E.L. con domicilio en c/ Navarra, 5. 48001 – Bilbao, con la finalidad de con la finalidad de poder gestionar y tramitar las candidaturas.</p> <p>Los datos se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y para determinar las posibles responsabilidades que se pudieran derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los datos.</p> <p>Dichos tratamientos se basan en el ejercicio de poderes públicos conferidos a Bilbao Ekintza, E.P.E.L. como responsable del tratamiento.</p> <p>Se realizarán transferencias internacionales de datos con el objeto de gestionar y tramitar las candidaturas seleccionadas para el Programa.</p> <p>Las personas interesadas tienen los siguientes derechos:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento, enviando un escrito a la dirección del responsable del Tratamiento, previa acreditación de su identidad.</li> <li>2. A reclamar ante la Agencia Española de Protección de Datos.</li> </ol> <p>Para más información acerca de los tratamientos de datos personales que realiza Bilbao Ekintza EPEL puede dirigirse a la dirección de correo electrónico <a href="mailto:datos@bilbao.eus">datos@bilbao.eus</a> solicitando más información acerca del presente tratamiento de datos personales.</p> |
| <b>DATA ETA SINADURA</b>  | <b>FECHA Y FIRMA</b>   |

## ANEXO II. ERANSKINA

### DISENATZAILEI ZUZENDUTAKO DEIALDIA, DUETO-DETROIT PROGRAMAN PARTE HARTZEKO INTERESA ADIERAZTEKO

### CONVOCATORIA A DISEÑADORES/AS INTERESADOS/AS EN PARTICIPAR EN EL PROGRAMA DUETO-DETROIT

|  |   |
|--|---|
| <b>II. ERANSKINA: HIZKUNTZEN EZAGUTZA</b><br>ANEXO II: CONOCIMIENTO DE IDIOMAS | <b>Sarrera Erregistroa</b><br>Registro de entrada |
|--|---|

Bete taula hau pertsonaren izen osoa eta ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan duen gaitasun-maila adierazita, EEMBren arabera (A1, A2, B1, B2, C1, C2). Ziurtagiri ofizialik baduzu, adierazi dagokion zutabean.

Pertsona juridikoen kasuan, programan parte har lezaketen diseinuaren arloko profesional bakoitzaren ezagutza zehaztuko da.

Taula betetzeko jarraibideak:

Ahozko adierazpena: jartotasunez eta zuzentasunez hitz egiteko gaitasuna.

Idatzizko adierazpena: testuak behar bezala idazteko gaitasuna.

Ziurtagiria: adierazi titulu ofizialik badagoen (adibidez: Cambridge B2, TOEFL, DELF, etab.)

Cumplimente la siguiente tabla indicando el nombre completo de la persona y su nivel de competencia en inglés y otros idiomas, según el MCER (A1, A2, B1, B2, C1, C2). Si dispone de certificados oficiales, indíquelo en la columna correspondiente.

En el caso de personas jurídicas, se especificará el conocimiento de cada uno de los y las profesionales del ámbito del diseño que podrían participar en el programa.

Instrucciones para rellenar la tabla:

Expresión oral: capacidad para hablar con fluidez y corrección.

Expresión escrita: capacidad para redactar textos correctamente.

Certificado: indicar si se dispone de título oficial (Ej.: Cambridge B2, TOEFL, DELF, etc.)

**Enpresaren izena / Nombre de la empresa:**

**Izen-abizenak / Nombre y apellidos:**

|                         | Adierazi maila EEMBren arabera / Indicar el nivel según el MCER:<br>A1, A2, B1, B2, C1, C2 |  |                            |
|-------------------------|--|--|----------------------------|
| Hizkuntza/ Idioma       | Ahozko adierazpena<br>Expresión oral   | Idatzizko adierazpena<br>Expresión escrita | Ziurtagiria<br>Certificado |
| Ingelesa / Inglés       |  |  |                            |
| (zehaztu / especificar) |  |  |                            |
| (zehaztu / especificar) |  |  |                            |

[Gehitu hizkuntza guztiak jasotzeko beharrezkoak diren lerroak eta kopiatu programan parte hartuko luketen pertsona adina taula. / Añadir las filas que sean necesarias para recoger todos los idiomas y copiar tantas tablas como personas participarían en el programa]

**Data eta sinadura / Fecha y firma**

## **DISENATZAILERI ZUZENDUTAKO DEIALDIA, DUETO-DETROIT PROGRAMAN PARTE HARTZEKO INTERESA ADIERAZTEKO**

### **CONVOCATORIA A DISEÑADORES/AS INTERESADOS/AS EN PARTICIPAR EN EL PROGRAMA DUETO-DETROIT**

#### **III. ERANSKINA: ERRONKAREN DESKRIBAPENA**

##### **ANEXO III: DESCRICIÓN DEL RETO**

[Livaq](#) enpresak Detroiten du egoitza, eta ibilgailu elektriko modularrak eta softwarearen bidez kontrolatutakoak garatzen ditu, flota publikoei, operadore profesionali eta aisialdiko erabiltzaileei zuzenduta. Haren produktu nagusiak, **EQUAD**ek, gaitasun aurreratuak biltzen ditu, hala nola floten kudeaketa, gidatzeko moduen konfigurazioa, bateria-egoera, segurtasun-alertak, modulu konektatuak eta urruneko softwareen (OTA) eguneratzeak.

**Diseinuaren erronka erabiltzailearen esperientzia (UX)** bateratua, segurua eta intuitiboa garatzea da ibilgailuaren interfazerako, bereziki baldintza zorrotzetan erabiltzeko pentsatua (eguzkia, euria, bibrazioak, eskularruen erabilera). Helburua da informazio kritikoa bistaratzeko eta interakzioa hobetzea pantailaren eta eskulekuko aginteen bidez, distrakzioak murriztuz, martxan dagoen bitartean erabilera erraztuz eta interfazea Livaqen marka-identitatearekin lerrokatuz.

#### **1) BACKGROUND/TESTUINGURUA**

EQUAD lur orotako ibilgailu elektriko modular bat da, softwarearen bidez kontrolatua, eta gobernu-flotei (basozainak, Baliabide Naturalen Saila), merkataritza-operadorei (ekoturismoa, bisita gidatuak) eta aisialdiko erabiltzaileei zuzenduta dago. Ibilgailuak gaitasun aurreratuak eskaintzen ditu (floten telemetria, gidatzeko eta potentziatzeko moduen konfigurazioa, bateriaren eta kargaren egoera, segurtasun-alertak, modulu konektatuak (adibidez, dibidieta, datu-erregistratutak) eta OTA (Over the Air) softwarearen eguneratzeak. Horiek guztiak berehala, modu seguruan eta kanpoko ingurune kaltegarrietan (eguzki bizia, euria, lokatza, eskularruak, bibrazioak) komunikatu behar zaizkie erabiltzaileei.

#### **2) ARAZOA**

Pantailaren gaur egungo kokapenak eta ibilgailuaren kontrolek ez dute eskaini nahi dugun informazio guztia ematen, eta ez dute argi erakusten. Funtsezko datuak eta ekintzak menuetan sakabanatuta daude, eta ukipen-interakzioak behar dituzte, gidatzen diren bitartean desegokiak direnak (eskularruak, euria, bibrazioak, eguzki-argia).

Erabiltzaile-esperientzia (UX) bateratua eta agintean zentratua behar dugu:

- Begiratu batean ibilgailuaren egoera kritikoa eta segurtasunekoak erakutsi, eskulekuan HUD (Head-Up Display)/pantaila konbinatuz.
- Livaq-en marka-identitatera egokitu eta operadoreen prestakuntza-denbora murriztu.

### 3) ERABILTZAILE NAGUSIAK ETA TESTUINGURUAK

- **Landa-operadorea / gidaria (nagusia)** — Basozainak, parkeetako langileak, gidariak. Begiratu bakarrean ikusteko moduko egoerari buruzko informazioa behar du (bateria, autonomia, abiadura, gidatzeko modua), modu-aldaketa azkarrak, larrialdiko ekintzak (larrialdiko argiak, geldialdia, eskuko balazta) eta interakzio kopuru minimoa ibilgailua mugitzen ari den bitartean. Normalean eskularruak izaten ditu, eta eguzkitan edo euritan egoten da.
- **Floten administratzailea / kudeatzailea (bigarren mailakoa)** — Konfiguraziorako, diagnostikoetarako, erabilera-erregistroetarako, OTA (Over the Air) eguneratzeak onartzeko eta flotaren telemetriarako sarbidea behar du. Lan horiek, batez ere, ibilgailua geldirik dagoenean edo urrutitik egiten ditu, flotaren kontrol-panelaren bidez.
- **Gidaria / merkataritza-operadorea (bigarren mailakoa)** — Premium funtzioetarako sarbidea, bidaiarientzako konfigurazio seguruak eta teknikariak ez diren langileentzako interfaze erraz bat behar ditu.
- **Mantentze-lanak / teknikaria (bigarren mailakoa)** — Diagnostiko- eta zerbitzu-moduetarako sarbidea, ibilgailua geldirik edo tailerrean dagoela.

### 4) ERAKUTSI BEHARREKO INFORMAZIOA (LEHENTASUNAK)

- **Bateria (%)** — (zenbakizko balioa + gainerako denbora); ehunekoa erakutsi behar du eta, eskatzen denean, agortu arte zenbatesten den denbora.
- **Zenbatetsitako autonomia** — (distantzia).
- **Potentzia/birsorkuntza maila** — (grafikoa + zenbakizko zenbatespena).
- **Abiadura** — zenbakizko balio handia eta kontraste handikoa.
- **Uneko abiadura/gidatzeko modua** — testu edo etiketa argia (Eco/Sport/Tow) eta erraz irakurtzeko moduko ikonoa.
- **Gidatze-egoera** — Drive/Reverse/Neutral/Park (ikono bereziak + testua).
- **4x4 / 4x2 adierazlea** — egoera aktibatuta/erabilgarri.
- **Kargaren egoera** — konektatua / kargaren % / karga osora arteko denbora (eta ea karga mugatuta dagoen flotaren politika dela eta).
- **Argiak** — aurreko / atzeko / larrialdietako argien egoera.
- **Konektatutako moduluak** — presentzia eta prestaketa-egoera (dibidieta prest, datu-erregistragailua aktibo).

- **Segurtasun-alerta kritikoak** — iraultzeko arriskua, motorrak/transmisioak huts egitea, ohartarazpen termikoak —, kolorearen arabera kodetuak eta derrigorrezko atzeraelikadura haptikoa / soinuzkoa dutenak.
- **Larrialdiko geldialdia** — erabilgarritasuna eta kokapena (botoi fisiko espezifikoa eskulekuan).

#### **BIGARREN MAILAKOA (kontrol fisiko bidezko sarbide azkarra + pantailako berrespen laburra)**

- Diagnostikoen laburpen sinplea: OK / Ohartarazpena / Kritikoa.
- Prozedura-jarraibide laburrak: nola kargatu, moduluak nola aktibatu / desaktibatu, itzalketa segurua nola egin.
- GPS / erreferentzia-puntuen ikuspegi azkarra (ibilbidearen nabigazio gidatua erabiltzen bada), ibilgailua mugimenduan dagoen bitartean norabide-adierazpen sinpleetara mugatuta.

#### **HIRUGARREN MAILAKOA (ibilgailua geldirik / lehentasuna pantailari)**

- Diagnostiko osoak eta erregistroak, flotak administratzeko orriak, OTA eguneratzeen onarpena eta xehetasunak, laguntza-edukiak, hizkuntzaren eta unitateen konfigurazioa, pertsonalizazio aurreratua.